

PRENTSA OHARRA: 2025.05.22

ZABAL programak Vasyi Cherepanyn, Berlingo Biurtekoko komisarioa, ekarri du Euskal Herrira, bertako testuinguru artistikoa lehen eskutik ezagutzeko

- Etxepare Euskal Institutuak bultzatutako bisita honek indartu egiten ditu euskal sorkuntzaren eta arte garaikidearen nazioarteko ekitaldi garrantzitsuenetako baten arteko loturak
- Bi egunetan zehar, Cherepanynek artisten estudioak bisitatu ditu eta bilerak izan ditu Bilboko, Donostiako eta Gasteizko kultur erakundeekin
- 2019tik, ZABAL programak lotura iraunkorrak sortu nahi ditu euskal testuinguru artistikoaren eta nazioarteko eszenaren artean

Donostia, 2025eko maiatzaren 22a-. ZABAL programak, Etxepare Euskal Institutuak bultzatutako ekimen estrategikoak, euskal ekosistema artistikoaren nazioartekotzea indartzen jarraitzen du, Vasyi Cherepanyn komisario eta filosofo ukrainarraren bisitarekin. Euskal Herrira etortzeak garrantzi berezia du, Cherepanyn Berlingo 14. Biurtekoko (2027rako aurreikusia) zuzendari artistiko izendatu baitute orain dela gutxi. Hori dela eta, topaketa hau aukera bikaina da euskal sorkuntza garaikidea maila globalean arte garaikidean eragin handia duen ekitaldietako batekin lotzeko.

Maiatzaren 21ean eta 22an izan da gurekin Cherepanyn, eta agenda bizia izan du, artisten estudioak bisitatu baititu, eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko kultura-erakundeetako arduradunekin bildu baita. Bilera horien helburua izan da lurraldearen sorkuntza-aberastasuna zuzenean eta testuinguruan kokatuta ezagutzera ematea



komisarioari, euskal artea haren etorkizuneko nazioarteko proiektuen radarrean sardadin, tokiko eszenaren eta Europako artearen zirkuituen arteko loturak indartuz.

Era berean, ZABAL programak Etxepare Euskal Institutuaren tresna estrategiko gisa izan duen ibilbidea sendotzeko aukera ematen du bisita honek, euskal testuinguru artistikoaren eta arte garaikidearen nazioarteko zirkuituen artean harreman iraunkorrak sortzeko, eta euskal sorkuntzaren posizionamendu globalari laguntzeko, trukerako, lankidetzarako eta elkar aintzatesteko dinamiken bidez.

Berlin Biennale, 2027ko ekaina

2027ko udan egingo da Berlin Biennale for Contemporary Art 2027 ekimenaren 14. edizioa, eta Europa garaikideak bizi dituen tentsio politiko, sozial eta historikoei buruzko gogoeta gisa aurkezten da. Vasyi Cherepanyn komisarioaren zuzendaritzapean, biurtekoak proposatzen du arteak esku-hartze publikorako, memoria kritikorako eta eraikuntza kolektiborako espazio gisa duen zeregina birpentsatzea.

Komisariotza-proposamenak hainbat gai jartzen ditu erdigunean, hala nola Ukrainako gerra, Europako eraldaketa demokratikoak eta Ekialdeko Europaren eta Mendebaldeko Europaren arteko harremanak, gaur egungo gatazken ondorio kultural eta sozialak aztertzen dituen programa bat artikulatuz. Era berean, biurtekoan herentzia post-sobietarrak eta postkolonialak jorratuko dira, bai eta solidaritate- eta erresistentzia-modu berriak ere, ezegonkortasun politikoak eta desplazamenduak markatutako testuinguru global honetan.

Proiektuaren ideia da Berlin Biennalek, Berlingo Harresia erori ondoren sortutako kultura-erakundeetako bat den aldetik, ahalmena baduela "publicness" forma berriak sortzeko, dimentsio artistiko, akademiko, sozial eta politikotik ulertuta.

Biurtekoak tokiko esperientzien eta problematika globalen arteko elkarrizketa proposatuko du, arte garaikideak pentsamendu kritikorako eta parte-hartze publikorako modu berriak sortzeko duen gaitasuna azpimarratuz.



Vasyl Cherepanyn

Vasyl Cherepanyn Ivano-Frankivskan jaio zen, Ukrainan, eta gaur egun Berlinen bizi da.

Cherepanyn funtsezko figura da gaur egungo Europan artearen, filosofia politikoaren eta aktibismoaren arteko gurutzaketa ulertzeko. Filosofian doktorea da eta Kieveko Visual Culture Research Center (VCRC) erakundeko zuzendaria. Kieveko Biurtekoaren buru izateagatik eta East Europe Biennial Alliance (EEBA) erakundearen kide sortzaile gisa egindako lanagatik nabarmendu da. Egin duen ibilbideak Princess Margriet Award for Culture saria ekarri zion 2015ean. Ibilbide horretan aztertu du arteak nola funtziona dezakeen erresistentzia zibikoko eta eraldaketa sozialeko espazio gisa, eta ikuspegi hori Berlingo Biurtekoko zuzendaritzara eramango du orain.

ZABAL programa

ZABAL programa eragin handiko kultura-diplomaziako tresna gisa sendotu da 2019an sortu zenetik. Programa horri esker, nazioarteko lehen mailako erreferenteek gertutik ezagutu dute euskal testuingurua, eta horrek mugarri historikoak ekarri ditu, hala nola euskal artistek Veneziako Biurtekoan edo Documentan parte hartzea. Cherepanynen bisitarekin, ZABALEk berretsi du Euskal Herriko sortzaileentzat nazioarteko agertokian aukera eta elkarrizketa leiho berriak irekitzeko konpromisoa.

ZABAL programa aurrera eramateko, tokiko eta nazioarteko arte garaikidearen inguruko proiektuen kudeaketan lan egiten duen Artingeniumen laguntza teknikoa jasotzen du Etxepare Euskal Institutuak.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da, eta bere eginkizuna da euskara, euskal kultura eta euskal sorkuntza nazioartean proiektatzea, eta hauen bidez beste eskualde, herrialde eta kulturekin harreman sendo eta



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

iraunkorrek eraikitzea. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, sortzaileen, artisten eta kultura eta sormen industrietako profesionalen mugikortasuna bultzatzen du, eta euskal ikasketak sustatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko lankidetzak sustatzen du, bai kultura arloan bai unibertsitatearen esparruan.

Info +

Komunikazioa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus